

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 661/2021 Erabakia, azaroaren 2koa. Onestea nekazaritza ustiatagietara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako 2021eko laguntzen aparteko deialdia, ekaineko eta uztaileko ekaitzek kaltetutako bideak konpontzeko

Diputatuen Kontseiluren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren bidez, nekazaritza ustiatagietara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako laguntzak arautzeko oinarriak onetsi ziren ("M04: Aktibo finkoetako inbertsioak" neurrian dago jasota), eta Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 8ko 21/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatu ziren, 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Planaren esparruan.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 16ko 12/2021 Foru Dekretuak oinarri arau horiek aldatu zituen berriz, haietan agertzen ziren lege erreferentziak eguneratzeko eta indarrean zegoen araudira egokitzeko.

2021eko ekainean eta uztailean ekaitz biziak izan ziren Arabako hainbat udalerritan, batez ere Arabako Errioxan eta Arabako Mendialdean, eta oso denbora gutxian ur kantitate handia bota zuen, euri jasa moduan, eta kalte larria eragin zuen Arabako Foru Aldundiko Landa Bideen Erregistroko zenbait bidetan, zeinak Arabako Lurralde Historikoko hainbat erakunderen titulartasunekoak baitira.

Gertaera klimatologiko horien ondoren, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko teknikariek udalerririk horietako bideak aztertu zituzten, zehazteko zer-nolako kalteak zituzten eta zer-nolako eragina izan zuten euriteek nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerarako ezinbestekoak diren azpiegitura horietan.

Erakunde titularrek bideak konpontzeko eta lehengoratzeko duten betebeharrak, nekazariak modu seguruan eta egokian erabil ditzaten, ezustean sortutako gastu handia eragin du, eta horri aurre egin behar diote, nekazaritza ustiatagietarako sarbidea berrezartzeko ezinbestekoak diren konponketa obrak egiteko premia atzerazina baita.

Nekazaritza Sailak Landa Bideak Erabili, Zaindu eta Hobetzeko 6/1995 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatzen duenez, Arabako Foru Aldundiak toki erakundeentzako laguntza lerroak ezarri behar ditu, bere erregistroan dauden bideak kontserbatu eta mantentzeko.

Arabako Lurralde Historikoko bide sarea kontserbatzeko, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 27ko 32/2017 Foru Dekretuaren bidez, Arabako landa bideak mantentzera bideratutako "gauzatan emandako laguntzen" modalitateko laguntzak arautzeko oinarriak onetsi ziren, eta, administrazio, funtzio eta aurrekontu ekonomia dela eta, zehaztu egin ziren urtero deialdian parte har dezaketen Arabako Lurralde Historikoko eremuak eta azpieremuak.

2021eko deialdian, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 53/2021 Erabakiaren arabera, Lapuebla de Labarcako eta Guardiako udalak bakarrik kaltetu zituzten ekaineko eta uztaileko ekaitz gogorrek, eta urteko deialdirako laguntza eskatu ahal izan zuten, eta, beraz, kaltetutako bideak konpontzeko obrak egin ahal izan zituzten.

Horregatik guztiagatik eta kontuan hartuta euri jasak direla-eta hondatuta dauden bideen egoera oso kaskarra dela, Nekazaritza Sailak uste du laguntzen aparteko deialdia egin behar dela zeregin horretarako, soilik Arabako Foru Aldundiaren Bide Erregistroan dauden bideak egokitzeko, bat etorritz Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsitako nekazaritzako ustiatagietara sartzeko bideak eta landa bideak konpontzeko laguntzen oinarri arautzaileekin, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 8ko 21/2018 Foru Dekretuak eta martxoaren 16ko 12/2021 Foru Dekretuak aldatu baitzituzten.

2021eko ekaineko eta uztailleko ekaitzek kaltetutako bide azpiegiturak konpontzeko eta erakunde jabeek izan duten desoreka ekonomikoa eta finantza eskasia arintzeko premian oinarritzen da laguntza deialdi honen aparteko izaera; izan ere, erakunde horiek ezusteko gastu ekonomikoa egin behar izan edo izango dute, erabiltzaileek nekazaritzako lanak arriskurik gabe egin ahal izan ditzaten bide horietatik igarotzean.

Bestalde, osasun larrialdiako egoera eta horrek eragindako ziurgabetasuna dela-eta, eta konponketak berehala egiteko premia zegoenez, erakunde askok obren zati bat berehala egin zuten, konponketetarako edozein laguntza eskaera aurkeztu aurretik.

Horregatik guztiagatik, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak uste du guztiz justifikatuta daudela laguntza horiek arautzeko aparteko baldintzak, salbuespenezko izaera baitute, eta, beraz, diruz lagundu ahal izango dira eskaera egiteko epea hasi aurretik egindako obrak, eta laguntzaren onuradun izan ahalko dira baldintza horiek betetzen dituzten erakunde guztiak. Hala, laguntza eskatzeko epea ohi baino laburragoa izango da, laguntza ere azkarrago jaso dezaten onuradunek.

Hala ere, erakunde onuradun bat bera ere ez dadin geratu dirulaguntzarik gabe, horrek aurrekontu desoreka arindu ezin izatea ekarriko bailuke, beharrezkoa da deialdi honetan jasotako laguntzak norgehiagoka prozeduraren bidez ematea. Laguntza eskaerei dagozkien finantza premiek laguntza horretarako aurrekontu erabilgarria gainditzen badute, aurrekontua onuradun guztien artean banatuko da proportzionalki.

Nekazaritza Sailak egindako kreditu egokitzapenen ondoren, 529.269,43 euroko kreditua dago Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastu aurrekontuan, bideak konpontzeko aparteko laguntzen deialdi bat egiteko.

Horrenbestez, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea nekazaritza ustiatagietara sartzeko bideetarako eta landa bideetarako 2021eko laguntzen aparteko deialdia, ekaineko eta uztailleko ekaitzek kaltetutako bideak konpontzeko, bat etorri Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsitako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileekin eta dekretu hori aldatu zuten Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 8ko 21/2018 Foru Dekretuarekin eta martxoaren 16ko 12/2021 Foru Dekretuarekin. Hona hemen deialdiaren xehetasunak:

Laguntzaren xede den bide azpiegitura:

1. Lehendik dauden bideak egokitzea, Arabako Foru Aldundiko Landa Bideen Erregistroan daudenak (oinarri arautzaileen 3.2. artikulua); hau da, bideen egiturek eta haien elementu osagarriek jasandako kalteak konpontzea.

1. Diruz lagun daitezkeen inbertsioak edo jarduerak hautatzeko kontuan hartuko den taldea eta diruz lagun daitezkeen gastuaren mugak:

1. taldea (ezohiko edo muturreko gertakari naturalek kaltetutako bideak konpontzea).

Soilik 2021eko ekainean eta uztaillean Arabako Errioxako eta Arabako Mendialdeko eskualdeetan izandako ekaitz gogorrek kaltetutako eta Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko teknikariek egiaztatutako bideen multzoa.

Bigarrena. Onestea 529.269,43 euroko kreditu erreserba, Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako aurrekontuko "Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea. Aparteko deialdia" izeneko 40.01.01.46.01.762.90.05 partidaren kontura, honako urtealdi honetan:

- 2021eko urtealdia: 529.269,43 euro (zorpekin erreferentzia: 21.1.21.105.4017/000).

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioerengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzengatik ere.

Hirugarrena. Salbuespen hauek ezartzen dira Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 57/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsitako laguntzaren oinarri arautzaileei dagokienez, bai eta Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 8ko 21/2018 Foru Dekretuaren eta martxoaren 16ko 12/2021 Foru Dekretuaren bidez egindako ondorengo aldaketei dagokionez ere:

1. Erakunde onuradunak: Dirulaguntza hau jaso ahal izango dute 2021eko ekaineko eta uztaileko euri jasen ondorioz beren titulartasuneko landa bideetan kalteak izan dituzten erakundeek, baldin eta Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko teknikariek egiaztatu badituzte.

2. Kontratu txikia izanez gero, nahikoa izango da aurrekontu bat aurkeztea.

3. Inbertsioak hautatzeko irizpideak: Laguntza arautzen duten oinarrien 8. artikulua ez da kontuan hartuko diruz lagun daitekeen inbertsioari buruzko irizpidea ezartzeko; izan ere, irizpide hori, laguntzaren aparteko izaeragatik beragatik, inplizituki zehaztuko da erakunde onuradun izateko txostenaren arabera.

4. Dirulaguntzaren ehunekoa: Laguntzaren oinarri arautzaileek ehuneko 60ko oinarrizko dirulaguntza ezartzen dute, eta fenomeno naturalek kaltetutako azpiegiturak konpontzeko laguntza bada, ehuneko 10 handitzen; hau da, dirulaguntza ehuneko 70ekoa izango da.

5. Ez da onartuko erakundeko 3.000,00 eurotik beherako inbertsio eskaerarik.

6. Laguntza eskaera inprimaki normalizatuan aurkeztu behar da, eta bide bakoitzaren konponentaren balorazio aurrekontua erantsi ahal izango da, edo, bestela, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko teknikariek egin dezaten eskatu.

7. Egindako obraren frogagiriak onartzea: 2021eko uztailetik aurrerako fakturak onartuko dira.

8. Deialdi honetan ezarritako laguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira.

Laguntza eskaerei dagozkien finantza premiek laguntza horretarako aurrekontu erabilgarria gairitzen badute, aurrekontua onuradun guztien artean banatuko da proportzionalki.

9. Emakidaren ebazpena orokorrean emango da erakundearen bide guztietarako.

10. Laguntzaren jakinarazpenean, honako hauek zehaztuko zaizkio erakunde bakoitzari: diruz lagundu daitekeen guztizko zenbatekoa, dirulaguntzaren ehunekoa eta diruz lagundutako bideen identifikazioa.

11. Laguntzak dirulaguntza ematea ebatzi ondoren ordainduko dira, konturako ordainketa bidez, eta 2022ko uztailaren 15a baino lehen justifikatu beharko dira, fakturak eta dagozkien ordainketak aurkeztuta.

Laugarrena. Laguntzaren finantzaketa.

Laguntza horietara bideratutako baliabideak Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aurrekontutik baino ez dira etorriko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko tokia eta epea.

Aurkezteko tokia:

Eskaerak hemen aurkeztu behar dira:

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

– Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroetan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan jasotako gainerako erregistroetako batean.

Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoen bidez (<https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>) telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; diharduten jarduera profesionalean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera profesional hori dela-eta egin behar dituzten izapide eta jarduketetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

Aurkezteko epea: Hamar egun baliodun, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean amaituko da.

Seigarrena. Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Zazpigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 2a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^ª ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE